

Inkiszioa euskararen etxaldean

Euskararen irakaskuntzari buruzko artikulua kaleratu berri du 'The Wall Street Journal' kazetak, euskara gutxietsiz eta euskararen aldekoak «erregimen zorrotza» ezarri nahian ari direla adieraziz.

AINHOA SARASOLA

Keith Johnson kazetari estatubatuarra AEK-k Bilbon duen egoitzan izan zen urrian. *The Wall Street Journal* kazetarako euskararen ikaskuntza prozesuari buruzko erreportajea egin nahi zuela azaldu zien AEK-koei. Nahi adina galderegin eta eskoletan izateko atekak zabalik zituela erantzun zioten, eta hala egin zuten. AEK-ko hiru arduradunekin bildu zen, haietako baten adierazpen bakarra jaso bazuen ere. Baina AEKz gain, kazetariak ez zuten jo euskararen irakaskuntzari lotutako bestelako eragile batera ere bere lana osatzeko. Aldiz, PPko bi legebiltzarkide, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu ohi Joseba Arregi eta postuari eusteko euskara ikasi behar duen irakasle batekin mintzatu zen. Hiru astera *Basque Inquisition: How do you say sheperd in Euskera?* (Euskal Inkiszioa: Nola esaten da artzain euskaraz?) artikulua kaleratu du *The Wall Street Journal*ek.

Johnsonek bere artikuluan dio irakasle asko euskara ikastera derigortuta daudela, «euren lanpostua galtzera arriskatu nahi ez badute». Bere lanerako euskara ikastea gehiegi iruditzen zaiola dioen irakasle baten aipua jaso du testuan, bide batez euskarak milioi bat hiztun baino gutxiago dituela, eta gaztelaniak, aldiz, 450 milioi dituela aipatzen du. «Euskal separa-



Keith Johnsonen artikulua, *The Wall Street Journal* kazetaren webgunean, eta kazetariari eginiko elkarrizketa, Aizualdizkarian. BERRIA

tistek» independentzia lortzeko borrokan 39 urte daramatzatela dio Johnsonek, eta «azken boladan askok armen ordezkari gramatika» baliatzen dutela. Halaber, «separatistak euskararen erregimen zorrotza» ezartzen ari direla dio, «(sektore) publikoko langile guztiek, postarietatik hasi eta suhiltzaileetara, euskara ikasi behar izateraino euren lanpostuak lortzeko –edo mantentzeko–». Osasun arloan, esaterako, «mediku defizita» dagoen arren, euskara jakitea eskatzen dela aipatzen du, besteren artean.

Leopoldo Barreda PPko buruzagiarren hitzak –«eguneroko bizitzan euskara ez da erabiltzen»–

edo Joseba Arregirenak –«euskara ez da egokia eguneroko solasaldi-tarako»– jasotzen ditu jarraian. Hala, euskara «bizimodu garaikidera ondo egokitu gabeko hizkuntza zaharra» dela dio. Eta horren lekuko, zenbait neologismo aipatzen ditu, *demokrazia*, *errenazimendu*, *zientzia*, *gobernu* edo *independentzia* hitzek euskaraz tradizioz ez dutela esateko. Ordea, *artzain* esateko, euskarak 10 hitz desberdin dituela dio, animalien arabera; *as-tazain*, *urdaín*, *behizain*... «Euskal erlijiosoei *Jainko* gurtzen dute» eta antzerako esaldiak ere idatzi ditu kazetariak, edo ETB1ek naturari buruzko dokumentalek baino ikusle gutxiago dituela. Juan Jose

Ibarretxe lehendakaria bera euskaldun berria dela ere aipatzen du.

Euskara ez ezik, irakaskuntza ere hizpide du kazetari estatubatuarra. «Ikasgeletan euskararen erabilerak curriculum kontrolatzea ahalbidetu die separatistei». Eskoletan umeei «Euskal Herrian» bizi direla eta hori «Espainiako estatuak kolonizatu» zuela irakasten zaiela dio. Eta hori dela eta, «bertako zenbait politikarik kezka» dutela, euskararen gainean tematzeak ez ote duen «separatisten eta Espainiaren arteko adiskidetzeari ezingo» egingo, Santiago Abascal PPko buruzagiak esanikoak jasotzearekin batera.

ERREAKZIOAK. AEK-ko arduradunek **BERRIARI** azaldu diote artikulua ez zaiela «bater» gustatu, eta hala adierazi diotela Johnsoni berari. Batetik, kazetariak haiengana jo zuenean agertu zien asmoa eta idatziz duen testua ez datozelako bat. Bestetik, «itxia eta asmo txarrekoa» dela uste baitute, ez duela alde guztietan hitz egin eta «euskararekiko errespetu falta ikaragarria» azaldu duelako. Erreakzio gehiago ere sortu ditu argitalpenak, *Sustatu* atarian, esaterako; zenbait lagunek kazetariari mezua bidali diote, desadostasuna agertuz.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ere erantzun zion erreportajeari. Patxi Baztarrikaren ustez, «euskara eta hizkuntz aniztasunarekiko mespretxua» erakutsi du kazetariak, «bere ezjakintasuna agerian utziz». Euskararentzat errespetua exijitu zuen, eta hizkuntzei ezin zaiela hiztun kopuruaren arabera omena kendu gehitu. Halaber, gogoratu du *empire*, *stupid*, *arrogance*, *idiot*, *frivolity* eta *language* hitzak latinezko maileguak» direla, «Johnsonek euskara mespretxatzeko erabilitako *science*, *democracy* edo *independence* maileguak diren bezala».

Euskara Institututuko zuzendari falta, arazoaren isla

XAN HARRIAGUE

Iruñea

Nafarroa Bairen (NaBai) talde parlamentarioaren ustez, kezagarria da Nafarroako Gobernuak Euskararen Nafar Instituturako zuzendaria oraindik izendatu ez izana. Taldearen ustez, indarrean dagoen zonifikazioa hor egonda, euskararen institutuak «nekez izan dezake sinesgarritasunik Nafarroako euskal hizkuntza komunitatean».

Duela bi hilabete, Carlos Perez Nieves Nafarroako Hezkuntza kontseilariak Euskararen Nafar Institutuaren sorreraren berri eman zuen. Erakunde Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikara garatzeko sortu zen, eta hori zuzentzeko euskal kulturaren munduko norbait izendatuko zuela jakinarazi zuen kontseilariak. Geroritik hainbat laguni eskaini die postua, baina aldi oro erantzuna ezezkoa izan da.

Egoera ikusi eta Hezkuntza kontseilariari hausnarketa garaia iritsi zaiola uste du Paula Kasares NaBaiko parlamentariak. «Ez al da Nafarroako Gobernuak duen hizkuntza politikarekiko ezadostasuna adierazteko modu garbia?». Institutuaren sortzea planifikatu ez izana ere salatzen du. «Ezerezean oinarritu den proiektua da, eta beraz ez da harrizkekoa oraindik bururik ez izatea».

Gauzak aldatzen ez direla eta, NaBaiko talde parlamentariak kontseilariaren agerraldia eskatu du, eremu mistoan zer nolako hizkuntza politika egiteko asmoa duen azal dezan.

Bestalde, gaur bertan, Carlos Perez Nievesek Nafarroako Parlamentuan azaldu beharko du zergatik ez duen EA Erek hurremanik nahi hizkuntza mailan.

1 ASTELEHENA 12 AURTIA 13 14

2008 agenda

Ohiko liburu dendetan salgai

- Aste osoko plangintza begiratu batean
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa berritua
- Hiru urtetako egutegia
- Lantoki, etxean, ikastetxean erraz erabiltzeko moduko AGENDA

Harpidedunek 10€

Erosketa egiteko,
deitu **943-30 43 45** telefonora
eta etxera bidaliko dizuegu agenda.

12€

aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria